

Zinemazaleak



Hiri batean barna ibiltzen garenean, pentsatzen dugunak ez du zerikusirik ikusten dugunarekin. Kalera irtengo gara, eta testua eta irudia ausaz lotuko ditugu, ustekabeko istorioak kontatuko dituen konposizio bat eraikitzeko.

Helburuak

- Xabier Idoateren obrara eta prozesuetara hurbiltzea.
- Irudia eta testua konbinatuz esperimentatzea.
- Zoriarekin eta arbitrariotasunarekin lan egitea.
- Argazkien orrazketa digitalak digitalaren aukerak aztertzea.
- Taldekako lana sustatzea obra bat egiteko.

Aipamenak

Artistaren profilak:

<https://www.youtube.com/channel/UCXqPdc57TvqMrb57HmgFffQ/featured>

<https://vimeo.com/xabieridoate>

<https://issuu.com/xabieridoate>

Automatismo surrealista: https://es.wikipedia.org/wiki/Automatismo_surrealista#Dibujo_y_pintura_autom%C3%A1tica

Idazkera automatikoa:

<https://fahrenheitmagazine.com/Bizitza-estiloa/agenda/metajam-el-primer-festival-nft-de-asia-con-lo-mejor-del-mundo>

https://hmn.wiki/eu/Automatic_writing

Surrealismoa:

<https://eu.wikipedia.org/wiki/Surrealismo>

André Breton eta Philippe Soupaulten "Arlo magnetikoak" lanaren sarrera (gaztelaniaz):

<https://www.elboomeran.com/wp-content/uploads/2021/03/Los-campos-magneticos3.pdf>

Ausazko ordena ezartzeko programa: <https://pinetools.com/es/aleatorizar-lista>

Argazki-editorea sarean: <https://pixlr.com/es/e/>

Proposamenaren garapena

Aurkezpena

1. Xabier Idoateren hainbat obra ezagutuko ditugu eta galdera hauek botako ditugu:

- Nola erlazionatzen dira irudia eta testua bere obretan?

- Zer transmititzen digute? Zer istorio kontatzen dizkigute?

Esperimentazioa / Sorkuntza / Ikerketa

1. Bakoitzak testu bat idatziko du folio batean, aurrez pentsatu gabe. Burutik pasatzen zaigun guztia idaztea da asmoa. André Bretonen idazkera automatikoaren manifestuan oinarritu gaitezke.

2. 4 lagunekoko taldeetan, kalera aterako gara noraezean ibiltzera, eta espazio jendetsu batean geldituko gara, hala nola metroan, autobus-geltokian, kale batean edo terraza batean. Argazkiak aterako dizkiegu ibilbideari, eraikinei, paisaiari, jendeari edo xehetasunei. Bakoitzak gutxienez 25 argazki aterako ditu; talde bakoitzak 100.

3. Taldekide bakoitzak iragazki bat aukeratuko du moldaketa digitalak egiteko online programa batean. Kolorearena edo formarena izan daiteke, irudiak bektorizatu ditzakegu, ausazko paletetatik sortutako kolore bat jar diezazkiekegu atzealdean, irudia marraz osatuta egon dadin eraldatu, etab.

4. Talde bakoitzak 4 iragazkiak aplikatuko dizkie irudi guztiei.

5. Testuak zatitan banatuko ditugu (esalditan edo hitzetan), eta gure taldekideen testuekin partekatuko. 100 zati aukeratuko ditugu. Denon artean adostuko ditugu letraren tamaina, tipografia eta testuaren balizko efektuak.

6. Irudiak eta testu zatiak ausaz batuko ditugu. Horretarako, sareko tresna bat erabil dezakegu. Jarraian, hautatutako irudietan txertatuko dugu testua.

7. Izenburu bat eta azal bat adostuko ditugu.

8. Hauek beharko ditugu:

- Kamera edo gailu mugikor bat
- Ordenagailua

Ondorioak eta lerro irekiak

1. PDFan esportatu, eta talde bakoitzak sortutako materiala ikusiko dugu.

2. Azken eztabaida. Testuaren eta irudiaren arteko loturak behatuko ditugu. Beste zentzu bat hartu dute? Sortu ditugun lanek gizarte garaikideari buruz dugun ikuspegi pertsonala erakusten dute?

3. Galdera hauek botako ditugu: Zer gertatuko litzateke irudi horiek bideo-formatuan baleude? Eta inprimatutako formatuan?